

ITSASOKO ERREGIMEN BEREZIKO

ALDI BATERAKO EZINTASUNARI

BURUZKO GIDA.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

Aurkibidea



Zer da aldi baterako ezintasuna?

Aldi baterako ezintasuna zehazten duten egoerak.

Nork eska dezake subsidio hori?

Zein da aldi baterako ezintasunaren zenbatekoa?

Prozesuaren hasiera eta ordainketaren erakunde arduraduna.

Zenbat irauten du aldi baterako ezintasunak?

Eta prozesuak 365 egun baino gehiago irauten badu?

Noiz amaitzen da?

Eta ABEn irauten duen bitartean lan-kontratua azkentzen bada edo norberaren konturako jardura eteten badut?

Eta ABEn egon bitartean adingabearen jaio eta hura zaintzeko egoera gertatzen bada?

Lan egin dezaket edo beste prestazio bat jaso dezaket aldi baterako ezintasunarekin batera?

Zein dira nire betebeharrak?


Nora jo behar dut prestazio ekonomikoa eskatzeko?

Zer da aldi baterako ezintasuna?

Aldi baterako ezintasuna (ABE) Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko bat da eta langilea, gaixotasun edo istripu batengatik, behin-behinean lan egiteko gai ez den eta osasun-laguntza jasotzen duen bitartean dituen errenten galerak estaltzen ditu.

Aldi baterako ezintasuna zehazten duten egoerak.

- Gaixotasun arrunta edo profesionala eta lanetik kanpoko edo laneko istripua.
- Laneko baja agintzen den gaixotasun profesionalengatikoaldiak.
- Emakume langileentzako egoera bereziak:
 - Bigarren mailako hileko mingarria.
 - Emakume langilearen haurdunaldiaren 39. asteko lehenengo egunetik.
 - Haurdunaldia etetea, borondatez edo nahi gabe, Osasun Zerbitzu Publikoak osasun-laguntza ematen dion eta lanerako ezinduta dagoen bitartean.



Nork eska dezake subsidio hori?

Aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea izateko, baldintza hauek bete behar dituzu:

- 1. Aldi baterako ezintasun-egoera egiaztatzen duen medikuaren bajaren partea.
- 2. Itsasoko Langileen Erregimen Berezian afiliatuta eta altan edo antzeko egoeran egotea.
- 3. Gutxieneko kotizazio-aldi bat egiaztatzea, zauden egoeraren arabera:

EGOERA	GUTXIENEO KOTIZAZIO-ALDIA
Gaixotasun arrunta.	180 egun, medikuaren baja baino lehenagoko 5 urteetan.
Haurdunaldiaren 39. asteagatiko berezia.	Gutxieneko kotizazio-aldi bera adingabearen jaiotza- eta zaintza-prestaziorako.
Berezia haurdunaldia eteteagatik. Berezia hileko mingarriengatik.	Ez da eskatzen.
Istripua, lanekoa izan ala ez gaixotasun profesionala.	Ez da eskatzen.

- 4. Norberaren konturako langilea bazara:
 - Gizarte Segurantzako kuoten ordainketak egunean izatea.
 - Titularra zaren establezimendua edo jarduera zuzenean kudeatzen duen pertsonari buruzko aitortpena aurkeztea, edo, hala badagokio, jarduera aldi baterako edo behin betiko eteteari buruzkoa.

Zein da aldi baterako ezintasunaren zenbatekoa?

Aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa eguneroko subsidio bat da, eta oinarri arautzaileari ehuneko bat aplikatuta kalkulatzen da.

- Oinarri arautzailea (OA), oro har, ezintasuna hasi aurreko hileko kotizazio-oinarria kotizazio hori dagokion egun kopuruarekin zatitzearen emaitza da.
 - Besteren konturako langilearen kasuan, 30 egunen artean zatituko da, soldata hilekoa bada, edo 28, 29, 30 edo 31 egunen artean, hilabetearen arabera, soldata egunekoa bada.
 - Norberaren konturako langilearen kasuan, 30 egunez zatituko da.
- Ehunekoa, dagokion kontingentziaren arabera:

KONTINGENTZIA	ALDIA	EHUNEKOA
Gaixotasun arrunta eta lanetik kanpoko istripua.	4. egunetik 20. egunera, egun hori barne.	%60
	21. egunetik aurrera.	%75
Lan-istripua eta gaixotasun profesionala.	Medikuak baja eman eta hurrengo egunetik hasita.	%75
Hileko mingarrien egoera berezia.	Lehen egunetik 20. egunera arte, egun hori barne.	%60
	21. egunetik aurrera.	%75
Haurdunaldia etetearen egoera berezia. Haurdunaldiaren egoera berezia.	2. egunetik 20. egunera, egun hori barne.	%60
	21. egunetik aurrera.	%75

Prestazioaren ordainketa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipenei lotuta dago.

Prozesuaren hasiera eta ordainketaren erakunde arduraduna.

Osasun Zerbitzu Publikoko edo mutualitate laguntzaileko medikuak medikuaren bajaren partea eman beharko du, eta baja hori oso laburra, laburra, ertaina edo luzea izan daiteke.

- Oso laburra: 5 egun natural baino gutxiago.
- Laburra: 5-30 egun natural.
- Ertaina: 31-60 egun natural.
- Luzea: 61 egun natural edo gehiago.

Bajaren, berrespenaren edo altaren partea egiten duen medikuak horren kopia bat baino ez dio emango besteren konturako langileari, eta ez da beharrezkoa izango partearen kopia bat enpresari helaraztea, enpresak Enpresen GSIN fitxategitik deskargatu ahal izango du eta.

Osasun Zerbitzu Publikoak, mutualitateak edo enpresa laguntzaileak Itsasoko Gizarte Institutura (IGI) bidaliko ditu, telematikoki, medikuaren bajaren, berrespenaren eta altaren parteen datuak. Informazio hori jaso ondoren, enpresek Enpresen GSIN fitxategiaren bidez kontsultatu ahal izango dituzte datuak.

Enpresek, bestalde, gehienez ere hiru egun balioduneko epean eta RED sistemaren bidez bidali behar dituzte IGIra medikuaren bajaren partearen datu ekonomikoak. Horrela, enpresek ez dituzte jada IGIra bidali behar berrespenaren eta altaren parteen datu ekonomikoak, eta horrela prozesua sinplifikatu egin da.



Aldi baterako ezintasunagatiko (ABE) prestazioa IGIk, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitateak edo enpresak ordainduko du ordainketa eskuordetu bidez, enpresek Gizarte Segurantzaren kudeaketan nahitaez lagundu behar dutelako.


- **Lan-istripuaren edo gaixotasun profesionalaren** kasuan, subsidioa lanean baja hartu eta hurrengo egunetik aurrera ordainduko da, eta bajaren eguneko soldata osoa enpresariak ordainduko du.
- **Gaixotasun arruntaren edo lanetik kanpoko istripuaren** kasuan, subsidioa laneko bajaren laugarren egunetik aurrera ordainduko da, nahiz eta bajaren laugarren egunetik hamabosgarren egunera, biak barne, subsidioa enpresariaren kontura izango den.
- **Bigarren mailako hileko mingarriengatiko aldi baterako ezintasun-egoera berezian**, subsidioa Gizarte Segurantzak ordainduko du, laneko baja ematen den egunetik aurrera.
- **Haurdunaldia eteteagatiko aldi baterako ezintasun-egoera berezian eta haurdunaldiko egoera berezian**, haurdunaldiko hogeita hemeretzigarren asteko lehenengo egunetik aurrera, subsidioa Gizarte Segurantzak ordainduko du laneko baja hartu eta hurrengo egunetik aurrera, eta bajaren eguneko soldata osoa, berriz, enpresariak ordainduko du.



ORDAINKETA ESKUORDETUA.

Itasoko Erregimen Bereziko lehen kotizazio-taldeko besteren konturako langileen kasuan, enpresak ordainduko du prestazio ekonomikoa soldaten aldizkakotasun berarekin, enpresek Gizarte Segurantzaren kudeaketan izan behar duten nahitaezko lankidetzari jarraikiz, subsidioaren zenbatekotik PFEZren atxikipena eta Gizarte Segurantzako kuotak kenduta.

Prestazioa ordaintzeko nahitaezko lankidetzari eutsiko zaio sendatzeagatik, hobekuntzagatik edo osasun-azterketetara justifikaziorik gabe ez agertzeagatik interesdunari medikuaren alta jakinarazi arte, edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ezintasun iraunkorreko proposamenarekin medikuaren alta eman duen hilaren azken egunera arte, edo gehienez ere 545 eguneko epea bete arte, betiere egun horretan amaituz. Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzen duten enpresek ordainduko diote prestazioa interesdunari medikuaren alta eman edo subsidio-eskubidea azkentzen duen ebazpena jakinarazten zaion egunera arte, eta, hala badagokio, aldi baterako ezintasunaren ondorio ekonomikoen luzapen-egoera barne hartuko du.



ORDAINKETA ZUZENA.

Bigarren eta hirugarren kotizazio-taldeetan sartuta dauden besteren konturako langileentzat eta norberaren konturako langileentzat, zein kotizazio-taldetakoak diren kontuan hartu gabe, Itsasoko Gizarte Institutuak edo Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileak ordaintzen du zuzenean prestazioa.

ISMk edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitateak, hala badagokio, subsidioa zuzenean ordaintzeko erantzukizuna ere izango dute honako kasu hauetan:

- Patronalak ordainketa eskuordetua egiteko duen betebeharra ez betetzeagatik.
- Hamar langile baino gutxiago eta subsidioa ondoz ondoko sei hilabetez baino gehiagoz ordaintzen duten enpresak, erregelamendu bidez hala eskatzen badute.
- Lan-harremana amaitzea/etetea, langilea ABE egoeran egonda.
- ABE egoeran jarraitzea, enpresa borondatez utzi ondoren.
- ABE egoeran jarraitzea, langabezia-aldia amaituta.
- Medikuairen alta, langabezia-prestazioa jasotzen dutenei Ezintasun Iraunkorrerako (EI) txostena proposatzeagatik.
- Gehieneko epea igarotzeagatik ABE agortzen den kasuetan, prestazioaren ondorioen luzapenak irauten duen bitartean, harik eta EI kalifikatu arte.
- Ezintasun iraunkorreko (EI) espedientea abiarazteagatik, ABEk irauten duen 365. egunetik aurrera, GSINren ikuskaritza medikoak Elren proposamen-txostenarekin altaren partea emateagatik.



Zenbat irauten du aldi baterako ezintasunak?

Subsidioa aldi baterako ezintasuneko egoeran zauden bitartean mantenduko da, eta hainbat faktoreren arabera izango da:

Gaixotasunaren edo istripuaren kasuan, arrazoia edozein dela ere.	Gehienez ere 365 eguneko iraupena izango du, eta beste 180 egunez luza daiteke, baldin eta, aldi horretan, sendatzeagatik medikuaren alta eman dakiokela uste bada.
Gaixotasun profesionalagatik behaketa-aldietan.	180 egun gehienez, eta beste 180 egunez luza daiteke, gaixotasuna aztertzeko eta diagnostikatzeko beharrezkotzat jotzen bada.
Emakume langilearen haurdunaldi-egoera berezian.	Erditze-egunera arteko iraupena edo, hala badagokio, haurdunaldiko arrisku-egoera hasi artekoa.
Bigarren mailako hileko mingarrien ondoriozko egoera berezian.	Prozesu horien batez besteko iraupena 3-5 egunekoa da.

Gogoratu prozesu berean berriz gaixotu dela joko dela patologia beragatik edo antzekoagatik medikuaren beste baja bat hartzen denean, medikuaren aurreko altaren ondorioen dataren ondorengo 180 egun naturaletan. Hileko mingarrien ondoriozko prozesu ezgaitzaileen kasuan izan ezik, prozesu berri bat hartuko baita kontuan aldi baterako ezintasun-egoeraren gehieneko iraupenaren ondorioetarako.

Eta prozesuak 365 egun baino gehiago irauten badu?

Behin 365 eguneko gehieneko epea amaituta, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) ikuskaritza medikoa izango da honako hauek egiteko gaitasuna izango duen bakarra:

- Medikuren alta:
 - Sendatzeagatik edo lanera itzultzea ahalbidetzen duen hobekuntzagatik.
 - Azterketa medikoetara justifikaziorik gabe ez agertzeagatik.
 - Ezintasun iraunkorreko (EI) proposamenagatik.
- Medikuren baja berria patologia beragatik edo antzekoagatik, medikuaren alta horren ondorengo 180 egun naturaletan.

Epe hori igarotakoan medikuaren altarik ez badago, aldi baterako ezintasuna luzatuko da, hurrengo 180 eguneko epean sendatzeagatik edo hobera egiteagatik medikuaren alta eman dakiokeela uste delako.



Noiz amaitzen da?

Oro har, aldi baterako ezintasunak 365 egun irauten du, eta hainbat arrazoiengatik amaitu daiteke:

- Sendatzeagatik edo langileak bere ohiko lana egin ahal izateko hobekuntzagatik medikuaren alta jasotzeagatik.
- Medikuaen altagatik, ezintasun iraunkorra aitortuta edo aitortu gabe.
- Medikuaen baja hartu zenetik 545 egun naturaleko gehieneko epea igarotzeagatik.
- Erretiro-pentsioa aitortzeagatik.
- GSINko ikuskaritza medikoak edo Gizarte Segurantzarekin lankidetzen diharduten mutualitate bateko medikuek ezarritako hitzorduetara eta azterketetara justifikaziorik gabe ez agertzeagatik.
- Heriotzagatik.
- Haurdunaldiaren hogeita hemeretzigarren asteko ABE egoera bereziaren kasuan, erditze-egunera arte iraungo du.

Arrazoi hauengatik ere ukatu, baliogabetu edo eten daiteke:

- Subsidioa lortzeko edo mantentzeko iruzur egitea.
- Norberaren edo besteren kontura lan egitea.
- Tratamendua atzera botatzea edo bertan behera uztea bidezko arrazoirik gabe.
- GSINra eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateetara atxikitako medikuek azterketak egiteko egindako deialdietara ez agertzeak eskubidea kautelaz etetea ekarriko du, deialdira ez agertzea justifikatua izan zen ala ez egiaztatzeko.

Eta ABEk irauten duen bitartean lan-kontratua azkentzen bada edo norberaren konturako jarduera eteten badut?

Besteren konturako langilea bazara eta:

- Aldi baterako ezintasuna kontingentzia arruntetatik badator:

ABE prestazioa jasotzen jarraituko duzu, langabezia-prestazioaren zenbateko berean, ABE iraungi arte, eta ondoren, legezko langabezia-egoerara igaroko zara. Langabezia-prestazioa jasotzeko alditik kenduko da lan-kontratua amaitzen den egunetik aurrera ABEn egondako denbora.

- Aldi baterako ezintasuna kontingentzia profesionaletatik badator:

ABE prestazioa jasotzen jarraituko duzu; egoera hori amaitu arte aitortu zaizun zenbateko bera jasoko duzu eta, ondoren, legezko langabezia-egoerara igaroko zara. Kasu honetan, ez da kontratua amaitu ondoren ABEn egondako denbora langabezia-saria jasotzeko alditik kenduko.

Norberaren konturako langilea bazara:

- ABE prestazioa jasotzen jarraituko duzu, jarduera uzteagatiko prestazioaren zenbateko bera jasoz ABE iraungi arte, eta ondoren, jarduera uzteagatiko prestazioa jasoko duzu, baldintzak betetzen badira. Jarduera uztearen legezko egoeraren datatik ABEn egondako denbora jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzeko alditik deskontatuko da, jada kontsumitu bezala hartuko delako.



Eta ABEEen egon bitartean adingabearen jaio eta hura zaintzeko egoera gertatzen bada?

Kasu horretan, ABE prestazioa eten egingo da, adingabea jaio izanaren eta zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko. Behin hori amaituta, ABE egoerak irauten badu, berriz hasiko da ABE prestazioa.

Lan egin dezaket edo beste prestazio bat jaso dezaket aldi baterako ezintasunarekin batera?

Arau orokor gisa, aldi baterako ezintasunaren prestazioa bateraezina da besteren konturako edo norberaren konturako jarduera bat egitearekin. Era berean, ez da bateragarria lan beretik eratorritako beste prestazio batzuekin. Aldi baterako ezintasunagatiko subsidioa bateragarria da alarguntza-pentsioarekin.



Zein dira nire betebeharrak?

Aldi baterako ezintasunaren prestazioa jasotzen baduzu, Gizarte Segurantzaren arloan dituzun betebeharrak ezagutu behar dituzu.

1. IGLari jakinarazi behar diozu ABE aitortu zaizun egoeran eragina duen edozein aldaketa, hala nola lan-jardueren hasiera.
2. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek deitutako azterketa medikoen deialdietara joatea, justifikaziorik gabe ez agertzea prestazioa azkentzeko arrazoietako bat delako.
3. Norberaren konturako langilea bazara, titularra zaren establezimendua edo jarduera zuzenean kudeatuko duen pertsonari buruzko aitorpena aurkeztu behar duzu, edo, hala badagokio, jarduera aldi baterako edo behin betiko uzteari buruzkoa. Aitortza hori aurkezten ez bada, prestazioa ordaintzen hastea eragotziko du.



Nora jo behar dut prestazio ekonomikoa eskatzeko?

Osasun Zerbitzu Publikoko edo mutualitate laguntzaileko medikuak medikuaren bajaren partea eman beharko du, eta baja hori laburra, ertaina edo luzea izan daiteke.


Prestazioa ordaintzeko ardura duen erakundearen arabera, IGlri edo mutualitateari eskatuko zaio, edo enpresak eskuordetutako ordainketa egingo da.

Erakunde eskuduna Itsasoko Gizarte Institutua bada, zure helbideari dagokion Probintziako edo Tokiko Zuzendaritzara bidal dezakezu zure eskaera, zure eskaera izapidetzeko beharrezko dokumentazioarekin batera.

Aurrez aurre edo Erregistro Elektronikokoaren edo Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikokoaren (<https://sede.seg-social.gob.es>) bidez ere egin dezakezu.

Zerbitzu horretan sartzeko ziurtagiri elektronikoa edo Cl@ve iraunkorra izan behar duzu. Horiez gain, eskabide-ereduak ere badituzu Egoitza elektronikoa eta Gizarte Segurantzaren webgunean.

“IGl zure poltsikoan aplikazioa” mugikorrerako aplikazioa ere eskuragarri duzu, eta Cl@ve sistemarekin, ziurtagiri digitalarekin edo SMS sistemarekin sartu ahal izango zara aplikazioan.



Araudia.

- *47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, itsas eta arrantza-sektoreko langileen gizarte-babesa arautzen duena.*
- *8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duena.*
- *2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.*
- *625/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, aldi baterako ezintasunagatik prozesuen kudeaketaren eta kontrolaren zenbait alderdi arautzen dituen haren iraupeneko lehen hirurehun eta hirurogeita bost egunetan.*
- *2/2023 Errege Lege Dekretua, martxoaren 16koa, pentsiodunen eskubideak handitzeko, genero-arrakala murrizteko eta pentsioen sistema publikoaren iraunkortasun-esparru berri bat ezartzeko premiazko neurriei buruzkoa.*
- *1/2023 Lege Organikoa, otsailaren 28koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa aldatzen duena.*
- *20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan Autonomoaren Estatutuarena.*
- *2530/1970 Dekretua, abuztuaren 20koa, norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezia arautzen duena.*



**PROBINTZIA-
ZUZENDARITZA**

Helbidea

P.K.

Herria

Telefonoa

Posta elektronikoa

A CORUÑA	C/ Ramón y Cajal, 2	15006	A Coruña	88 190 98 00	acoruna.dirprov.ism@seg-social.es
ALICANTE	C/ Faro de Santa Pola, 2	03001	Alicante/Alacant	96 512 65 23	alicante.dirprov.ism@seg-social.es
ALMERIA	C/ Puerto Pesquero, s/n	04002	Almería	95 062 02 11	almeria.dirprov.ism@seg-social.es
BARCELONA	C/ Albareda, 1 - 13	08004	Barcelona	93 443 96 00	barcelona.dirprov.ism@seg-social.es
BIZKAIA	C/ Virgen de Begoña, 32	48006	Bilbao	94 473 90 00	bizkaia.dirprov.ism@seg-social.es
CÁDIZ	Avda. de Vigo, s/n	11006	Cádiz	95 625 17 03	cadiz.dirprov.ism@seg-social.es
CANTABRIA	Avda. de Sotileza, 8	39009	Santander	94 221 46 00	santander.dirprov.ism@seg-social.es
CARTAGENA	C/ Muelle Alfonso XII, s/n	30202	Cartagena	96 850 20 50	cartagena.dirprov.ism@seg-social.es
CASTELLÓN	Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n	12100	Castellón de la Plana Castelló de la Plana	96 428 30 72	castellon.dirprov.ism@seg-social.es
CEUTA	C/ Muelle Cañonero Dato, 20	51001	Ceuta	95 650 02 40	ceuta.dirprov.ism@seg-social.es
GIJÓN	C/ Celestino Junquera, 19	33201	Gijón	98 532 72 00	gijon.dirprov.ism@seg-social.es
GIPÚZKOA	C/ Hermanos Otamendi, 13	20014	Donostia San Sebastián	94 348 32 00	gipuzkoa.dirprov.ism@seg-social.es
HUELVA	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	Huelva	95 925 74 11	huelva.dirprov.ism@seg-social.es
ILLES BALEARS	C/ Moll Vell, 15	07012	Palma de Mallorca	97 172 56 06	illesbalears.dirprov.ism@seg-social.es
LAS PALMAS	C/ León y Castillo, 322	35007	Las Palmas de Gran Canaria	92 849 46 45	laspalmas.dirprov.ism@seg-social.es
LUGO	C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 – bajo	27002	Lugo	98 222 50 10	lugo.dirprov.ism@seg-social.es
MADRID	C/ Churruca, 2	28004	Madrid	91 591 99 00	madrid.dirprov.ism@seg-social.es
MÁLAGA	C/ Pasillo del Matadero, 4	29002	Málaga	95 195 57 45	malaga.dirprov.ism@seg-social.es
MELILLA	Avda. de la Marina Española, 7	52001	Melilla	95 176 43 00	melilla.dirprov.ism@seg-social.es
SEVILLA	C/ Fernando IV, 1	41011	Sevilla	95 428 60 28	sevilla.dirprov.ism@seg-social.es
TARRAGONA	C/ Francesc Bastos, 19	43005	Tarragona	97 719 10 00	tarragona.dirprov.ism@seg-social.es
TENERIFE	Avda. de Anaga, s/n	38001	Sta. Cruz de Tenerife	92 259 89 00	tenerife.dirprov.ism@seg-social.es
VALENCIA	Av. del Port, 300	46024	Valencia	96 335 99 00	valencia.dirprov.ism@seg-social.es
VIGO	Avda. Orillamar, 51	36202	Vigo	98 621 61 00	vigo.dirprov.ism@seg-social.es
VILAGARCIA	Avda. de la Marina, 23	36600	Vilagarcía de Arousa	98 656 83 00	vilagarcia.dirprov.ism@seg-social.es



INFORMAZIO GEHIAGO

Webgunea



Egoitza Elektronikoa



Deskargatu *IGI zure poltsikoan aplikazioa*



GIZARTERATZE, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Gizarteratze, Gizarte Segurantz eta Migrazio Ministerioaren argitalpen-programan
sartutako argitalpena (829/2023 Errege Dekretua, Azaroaren 20koa)

Argitalpen honetan klororik gabeko paper birziklatua erabili da
kontratazio publikorako ingurumen-irizpideen arabera.

<https://cpage.mpr.gob.es>



MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA